

# PEIO, PETER, PIERRE, PEDRO... "P"

## Modalitatea: Ipuina

Duela urte batzuk... - ez, horrela ez! - orain duela ez hainbeste... - ez, horrela ezta ere! -. Beno, berdin dio, kasua da nire izena Peio dela, beno edo Peter; Pierre ere dei nazakezue nahi izanez gero... beno, baina bene benetan nire gurasoek Pedro izena jarri zidaten eta hori jartzen du nire NANean. Bai, badakit zer pentsatzen ari zareten: Pedro, "Picapedra" bezala. Ba bai, ofizialki hala izena dut; beraz, suposatzen dut horrela ere dei nazakezuela. Laburbilduz, "P" deituz gero kasu egingo dizuet ere, beraz zuek erabaki zein duzuen gustokoen edo zein iruditzen zaizuen "cool"-agoa; izan ere, berdin zait zein erabiltzen duzuen, jada nekatu bainaiz pertsona guztiei nire izenaren inguruko azalpenak emateaz.

Beraz, zuetako norbaitek oraindik argi ez badauka, gaur nire izenaren sinonimoen inguruan sortutako nahasmenduaren azalpenaren kontakizuna kontatzera etorri natzaizue; horrela, bene benetan espero dut (hatzak gurutzatuak ditut eta guzti) behingoz argi eta garbi gelditzea eta azalpen gehiago eman behar ez izatea. Eta ez, ez daukat nire izenarekiko obsesio bat.

Ziurrenik pentsatzen hasiak zarete "zein konplexutasun izan dezake hain arrunta den izen batek?". Ba, nire kasuan, asko. Beno, hori edo nire burua aurkezten hain traketsa eta malgua naizela non, nire gurasoek gain, jada ia inork ez nauen nire benetako izenaz deitzen.

Beno, harira. Nahasmendu guzti hau lehen aldiz haur soila nintzela garatzen hasi zen. Nik lau edo bost urte inguru izango nituen eta uda garaia zen. Egun hartan familia

osoa bildu ginen bazkari batean, ez dakit zein arrazoiengatik egia esan. Eta, “osoa” esaten dudanean, “osoa” da; hau da, Baionan bizi diren eta ia inoiz ikusten ez dituzun izeba-osaba eta lehengusu-lehengusinak ere. Hain zuzen ere, lehengusu haietako bat izan zen lehen aldiz “Pierre” deitu ninduena edo, hobeto esanda, inolako dudarik gabe “Pierre” deitzen nintzela argi uzten lehena. Zera gertatu zen: nire lehengusuak, nire adin antzekokoak, euskara ez zuen oso ongi menperatzen eta, nola ez, nik frantses zipitzik ere ez nekien. Orduan, berak galdetu zidan, euskara oso trakets batean, ea nola izena nuen eta nik, noski, “Pedro.” erantzun nion. Ondoren, aurpegi arraroz begiratu ninduen eta nire izebari, frantsesa denari, zer edo zer galdetu zion. Hau egin eta gero, niregana poz pozik itzuli zen “Ooh! Pierre! Pierre!” esanez eta nik, ez nuenez ezertxo ere ulertzen eta hain pozik ikusten nuenez, irribarre egin nion. Koittadua ni, ez bainekien nire lehengusuari jatetxe osotik nire izena Pierre zela oihukatuz joatea bururatuko zitzaiotz. Beraz, geroztik, jatetxe hartan zeuden eta, dirudienez, nire lehengusuak egindakoak izugarritzko grazia egin zien senitartekoek Pierre deitzen naute; eta, hare okerrago oraindik, ia 25 urte beranduago hala deitzen nauten bakoitzean irribarre bihurri bat egiten jarraitzen dute.

“Ados”, esango duzue, “jada badakigu zergatik Pierre, baina Peter eta Peio zer?”. Beno, ba hoi azalpenak beste istoriotxo xeble bezain kurioso batzuk dira. “Peio” deitzearena, adibidez, nire nerabezaroan gertatu zen. Egia esan, istoriotxo hau, hiruen artean berriz azaltzea gutxien axola zaidana da; izan ere, garai hartan aitona-amonen Nafarroako herrian bizitako egoera farregarri bezain ederrak gogora ekartzen dizkit. Istoriotxo hau, udako oporraldia bertan igarotzen ari nintzela gertatu zen. Hamalau urte inguru nituen eta, udaro bezala, nire adin antzekoko gazte osatutako taldetxo berdina bildu ginen herrian. Uda hark ez zirudien beste munduko ezer, baina, abuztua zelarik, turista taldetxo bat iritsi zen herrira nik zer dakit zertara. Orduan, herrian normalean

turista asko ez zebilenez, bertan ginen guztiak berehala enteratu ginen haien etorreraz eta gure talde txokoei iritsi berriei “inbasoreak” ezizena jartzea bururatu zitzaigun. Eta pentsatuko duzue, “bale, eta zer?”; ba inbasoreenak eskuetatik ihes egin zigula. Hau esaten dut, adibidez, haiek espiatzera jolasten genuelako edo haiek gu uler ez gintzaten hizkuntza sekretu bat eratzea pentsatuta genuelako. Hau pentsatzen ari ginela, gutako batek deskubritu zuen euskara zipitzik ez zekitela eta, gutako guztiek euskaraz bagenekienez, gure artean euskaraz hitz egitea erabaki genuen. Esango duzue, “Ados, eta Peiorena?”; banoa banoa, pazientzia izan. Ba Peiorena hortik dator, izan ere, “Pedro” euskaraz “Peio” da eta gure erabakietako bat horixe bera izan zen, gure izen guztiak euskaratzea. Beraz, jada ziurrenik ondorioztatu duzuen bezala, geroztik herrian hala ezagutzen naute; “Peio” bezala eta ez “Pedro” bezala.

“Ongi da, hirutik bi, eta azkenekoa zer, P?” . Ba azkenekoa, hau da, “Peter” deitzearena, nire ustez ingelesez hitz egiten den herrialde batera ikasketak burutzera joan den edozeini gerta lekioken kontakizuna da; izan ere, horrexegatik atzerriko lagunek “Peter” deitzen naute. Gauza zera da, EHU n karrera ikasten bukatu ondoren, Ingalaterran graduondokoa burutzeko aukera eman zidatela eta, bitan pentsatu gabe, bertara joan nintzela. Hasiera batean, zertxobait kostatu zitzaidan egoera berrira moldatzea; badakizue: hizkuntza, lekua, ohiturak... eta nire egoera berdina bizi izan duen pertsona orok esaten duen guzti hori. Baina, egia esan, ez dakit zeini kostatu zitzaion gehiago nire egoerari moldatzea, niri edo nire irakasleetako bati. Izan ere, nahiz eta nire izena behin eta berriro errepikatu, gizon gixajoa ez zen nire izenaren “dro” silaba esateko gai eta, azkenean, “Peter” deitzeko baimena eman behar izan nion; pena ematen baitzidan nire NANeko izenaz deitzeko saiakera egiten zuen bakoitzean. Nik, berez, hori egiteko baimena soilik irakasle hari eman nion baina, denek badkigu nolakoa den jendea halakoetan: grazia egiten die irakasleak horrela deitu behar izana eta, berehala,

irakasleaz gain ikaskideek “Peter” deitzen zaituzte ere. Beraz, uste dut suposatzen duzuela zein izan zen nire izena Ingalaterran bizi izan nintzen bitartean: “Peter”.

Beno ba, nire izenari dagokionez, gainontzeko guztia badakizue. Beraz, mesedez, hurrengoan, hurrengo aldi bat baldin badago, ez galdetu nola deitu edo nire izenena nondik datorren; ikusi duzue, nahiko luzea baita azaltzen eta, jada, hain nekatuta nago azaltzeaz non hau idatztea erabaki dudan honen inguruan azalpen gehiago eman behar ez izateko.

Berdin du nola deitu: Peio, Peter, Pierre, Pedro edo, laburbiltzeko, nik neure buruari jarritako “P”. Soilik deitu. Nahiz eta pertsona batzuei ulertzea kostatu, pertsona bera naiz.

Beno, orain zati zailena dator, ea nola amaitzen dudan nire kontakizuna eta ea ez zaidan hasieran bezala gertatzen... Nola zen? Ah, bai! “Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Irungo plazan.”. Horrela ondo, ez?

**Izaro Berruet**